



Laneko Osasunaren Informazio Buletina

89 alea / 2022ko abendua

Berritasunak

Prebentzioa Integratzeko Programa



Prebentzioa Enpresen Kudeaketan Txertatzeko Programa.

Joan den azaroan, abian jarri zen **Prebentzioa Enpresen Kudeaketan Txertatzeko Programaren proiektu pilotua**. Ekimen hori 100 langile baino gutxiago dituzten Nafarroako adinekoen egoitzei zuzendua dago. Guztira, hamar egoitza-zentro atxiki zaizkio proiektuari, bi taldetan banatuta, kokapen geografikoaren arabera (Iruña eta Tuter). NOPLOIko teknikariek prebentzioa kudeatzeko tresnak eskaintzen dizkiete zentro horiei, bai eta tresna horiek erabiltzeko aholkularitza teknikoa ere. Programa, beharrezko egokitzapenak egin ondoren, gainerako zentro hartzaileetara zabalduko da 2024. urtean, esperientzia ebaluatu ondoren, hurrengo urteetan gainerako jardueretan nola aplikatu den baloratzeko.

 [Argibide gehiago](#)

NOPLOIk parte hartu zuen “Gazteen nahasmendu muskuloeskeletikoak, protagonisten ikuspegitik” jardunaldian.

NOPLOIko teknikariek berriki parte hartu dute “**Gazteen nahasmendu muskuloeskeletikoak, protagonisten ikuspegitik**” jardunaldian. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak antolatu zuen, EU-OSHarekin eta RESSTekin lankidetzan. Jardunaldiaren helburua zen gazteen artean osasun muskuloeskeletiko ona sustatzea, etorkizuneko langileen artean nahasmendu horien prebalentzia murrizteko asmoz.

Jardunaldian, LHko ikasleek gaiari buruz egindako ikus-entzunezko lanak ikusi ziren, eta gazteei berariaz zuzendutako prebentzioaren arloko proiektu batzuk aurkeztu ziren; besteak beste, **INSPIRATU proiektua**, NOPLOIk eta Hezkuntza Departamentuak sustatua.



Trabajos saludables:
RELAJEMOS LAS CARGAS
**LOS TME EN JÓVENES
DESDE LA MIRADA DE SUS
PROTAGONISTAS**
15 de noviembre de 2022



[Jardunaldirako esteka](#)

Nabarmendua



NOPLOIk 35 pertsona baino gehiago eratzen ditu amiantoa aurkitzeko eta diagnostikatzeko.

Guztira 37 lagunek hartu dute parte **Amiantoari buruzko UNE 171370-2 arauaren hastapenak. 2. zatia. Amiantoa aurkitu eta diagnostikatzea** izeneko ikastaroan. NOPLOIk aurten Osasun Publikoaren (Leire kalea) eta Lan Osasunaren (Landaben) egoitzetan antolatu eta eman duen amiantoaren lokalizazioa eta diagnostikoa. Erakundeak prestakuntza-ekintza horri jarraipena eman nahi dio eta bi ikastaro berri programatuko dira 2023ko lehen hiruhilekorako.

AUTOGESTIOA. Osasuna aktibo bat da

2022ko azken mezuak berriz ere oroitarazten digu garrantzitsua dela **laneko arriskuen prebentzioa** enpresen kudeaketan eta enpresen egunerokoan **txertatzea**. Gai hori modu eraginkorrean landu ahal izateko, ezinbestekoa da horren garrantzia barneratzea, erantzukizunak denon artean hartzea gure gain, eta maila hierarkiko guztiek prebentzioaren aldeko benetako konpromisoa hartzea.



¿ELLA SE LO HA BUSCADO?

La violencia contra las mujeres es el único delito en el que se cuestiona a la víctima. ¡CAMBIALO!

25N Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres

Emakumeen aurkako indarkeria lan-esparruan: isildutako errealitatea.

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta, NOPLOIk berriz oroitarazi du garrantzitsua dela lantokietan emakumeen aurkako sexu-jazarpenaren aurka borrokatzen jarraitzea, lan-esparruan gertatutakoa salatzeko zailtasun handiak baitaude.

Emakumeen aurkako indarkeriari

buruzko azken makroinkestako (2019) datuen arabera, emakumeen % 17,3k jazarpena jasan du lantokian. Duela gutxi, CCOO sindikatuak, Berdintasun Ministerioarekin lankidetzan, abian jarri du [Sexu Jazarpenaren eta Sexu Arrazoiengatiko Jazarpenaren Behatokia](#), horrelako egoerak ikusarazten laguntzeko eta biktimei baliabideak eskaintzeko.

Agenda



Jardunaldia
PREBENTZIOA ERAKUNDEEN DNAn
Uharteko Arte Garaikideko Zentroa – Abenduak 16

- [Programa](#)
- [Izen-ematea](#)


Berriak

- [Los accidentes laborales mortales aumentan un 18,2%, con 623 fallecidos hasta septiembre](#)
Europa Press
- [Un juzgado considera accidente laboral la caída de una teletrabajadora en su baño](#)
El País
- [Los afectados por amianto piden celeridad y concreción al futuro reglamento de la ley](#)
Diario de Noticias
- [La justicia obliga a Iberia a controlar el peso de las maletas para que los azafatos no se lesionen](#)
El País
- [Resolución de incapacidad permanente: qué es y cómo solicitarla](#)
Diario de Navarra
- [Los médicos urgen a cambiar el modelo de bajas laborales en 2023 para evitarles trámites](#)
La Vanguardia
- [Prevención riesgos laborales: la importancia de estar certificado](#)
Europa Press


Argitalpen digitalak




A dos metros sobre el suelo
Segurmanía



Epidemiología de las patologías no traumáticas. 11 años de Panotratss
INSST



Análisis de casos de personas que trabajan con trastornos musculoesqueléticos crónicos
EU-OSHA



Guía de equivalencia PRL entre países

Foment del Treball Nacional



Calidad del ambiente interior en el trabajo

INSST




Guía: Cómo gestionar los riesgos psicosociales en tu empresa

OSALAN



Factores de riesgo psicosocial del personal trabajador en los call center

INSST



Guía técnica para la evaluación y prevención de los riesgos relacionados con los agentes químicos

INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektronikoa honetara ispln.ufii@navarra.es



ARGITARATZAILEA:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)

☎ 848 423 771

Edizio-formatua:

Fitxategi elektronikoa - 2022ko abendua